



Lehiaren  
Euskal Agintaritzaren  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZ

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Álvarez Casado jauna

### Aurkibidea

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK.....	3
A) Elkargoko kide nahitaez egin behar izatea .....	3
B) Estatuko lurralde osoan elkargo bakarreko kide egitea .....	7
C) Zenbait lanbidetan batera aritzea.....	7
D) Elkargoak bakarrik ordezkatzeko lanbidea erakunde-arloan.....	8
E) Elkargoak Elkargoko kideak ordezkatzeko .....	8
F) Ordainsariak .....	9
a) Ordainsariak kobratzeko Elkargoko zerbitzua.....	9
b) Ordainsariei eta prezioak zeharka finkatzeari buruzko txostenak.....	10
G) Oniritzia .....	11
a) Oniritzia eman beharra .....	12
b) Kostua .....	13
H) Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea .....	13
I) Elkargoa Elkargoko kideen kontrako lehia bidegabean aritzea.....	14
J. Elkargoaren baliabide ekonomikoak .....	15
IV. ONDORIOAK .....	15

Lehiaren Euskal Kontseiluko osoko bilkurak, 2013ko apirilaren 8ko bileran, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuei buruzko txosten hau egitea erabaki du.

### I. AURREKARIAK

1. 2013ko otsailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.



## II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n) artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak profesionalen elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: “Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute”.

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea<sup>1</sup> bete behar dute, bere osotasunean. Berriki, zerbitzuei buruzko Europako Erkidegoko direktiba<sup>2</sup> aplikatzeak aldaketak eragin ditu araudian, eta aldaketek are argiago utzi dute lehiari buruzko araudiari men egin beharra. Estatuan zein EAEn, profesionalen elkargoei buruzko araudia Direktibaren aurreko arau batzuetan oinarritzen da: profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legean<sup>3</sup> eta azaroaren 21eko 18/1997 Legean, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoan<sup>4</sup>. Hala ere, Estatuko eta EAeko arau ugari Direktiba irauli dute, eta aipatutako arauak aldarazi dituzte, eta, horrenbestez, baita profesionalen elkargoei jarduteko araubidea ere. Funtsean, arau hauek irauli dute Direktiba: Estatuan, azaroaren 23ko 17/2009 eta abenduaren 22ko 25/2009 legeak eta, EAEn, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak<sup>5</sup>.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen xedea da “tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da”. Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain

<sup>1</sup>15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia defendatzekoa.

<sup>2</sup>2006/123/EE Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

<sup>3</sup>2/1974 Legea, otsailaren 13koa, profesionalen elkargoei buruzkoa. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurzorua liberalizatzeko neurriei eta profesionalen elkargoei buruzkoa.

<sup>4</sup>18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.

<sup>5</sup>17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa. 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko Legea egokitze aldatzeko dena. 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa –azaroaren



zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 139. artikulua: “Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea”.

Horrenbestez, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak arautzen du Biologoek Elkargoa; zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketen araberrako testuak. Izan ere, arauaren bederatzigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, “elkargo profesionalen erregimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen direnean”.

**3.** Elkargoek araudiari men egitea ez da estatutuen eta elkargoen beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez-hitzeko testuak araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra bailezakete<sup>6</sup>.

**4.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu estatutuetako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzak bi aholku mota emango ditu txosten honetan: araudiaren balizko urraketei buruzkoak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

### **III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK**

#### **A) Elkargoko kide nahitaez egin behar izatea**

**5.** Espainiako Konstituzioaren barruan, 36. artikulua arautzen ditu elkargoak. Konstituzio Auzitegiak artikulua hori interpretatu du, eta, xedatu duenez, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea “interes publiko bati zerbitzu egiteko beharrak justifikatzen duenean bakarrik da zilegi Konstituzioaren arabera”<sup>7</sup>. Horrenbestez, egoki

---

21eko 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa, aldatzen du apirilaren 23ko 7/2012 Legeak–.

<sup>6</sup>LEHIAREN ESPAINIAKO BATZORDEA: *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011, 22. or. eta hurrengoak.

<sup>7</sup>Konstituzio-azitegiaren 89/1989 epaia, maiatzaren 11koa. Ildo berean, Konstituzio-azitegiaren 330/1994 epaia, abenduaren 15ekoa –nor bere borondatez kide egiten den elkargoak baimentzen ditu–, eta Konstituzio-azitegiaren 76/2003 epaia, apirilaren 23koa –toki-



irizten badio, profesionalen elkargoak elkartzeko eta ogibidea aukeratzeko askatasunak mugatzeko moduan (eta, bereziki, elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezarrita) antolatze gaitasuna ematen dio Konstituzio Auzitegiak **legegileari**, lanbide jakin batzuekin lotutako interes publikoek justifikatzen badute betiere<sup>8</sup>.

Azaroaren 23ko 17/2009 Legeak zerbitzuei buruzko 2006/123 Direktiba iraultzen du eta, salbuespen gisa, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea baimentzen du, ezaugarri hauek guztiak dituzten egoeretan:

- Ordena publikoak, segurtasun publikoak, osasun publikoak edo ingurumena babestu beharrak justifikatzen du elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea (12. artikulua).
- Elkargo bateko kide egiteko eskakizunak ez dakar diskriminaziorik; hau da, ez du diskriminatzen, ez zuzenean ez zeharka, herritartasunaren arabera edo dagokion agintaritzaren lurraldean kokatu izanaren arabera (5. artikulua).
- Beharrezkoa da elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea; hau da, interes orokorraren premia larri batek justifikatzen du elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea (5. artikulua).
- Helburuaren neurrikoa da elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea; hau da, ez dagoenez gero emaitza bera lortzeko neurri ez hain murriztailerik, elkargo bateko kide egitea da helburua lortzea ziurtatzeko biderik egokiena (5. artikulua).
- Elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa dela xedatzen duen legeak behar bezala arazoitzen du araua (5. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoan, azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 30.1. artikulua arautzen du profesionalen elkargo bateko kide egiteko eskatu ahal izatea. Hain zuzen ere, xedapen horrek dioenez, “lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, [...] **legeak horrela ezartzen duenean**”<sup>9</sup>. Alegia, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea zuzenbidearekin bat datorrela jotzeko, beharrezkoa da lege-mailako arau batek behartzea elkargo bateko kide egitera.

Gainera, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen babesa izateko<sup>10</sup>, lege-mailako arau batek xedatu behar du elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa dela.

---

administrazioko idazkariek, kontu-ikuskatzaileek eta diruzainek elkargoetako kide egin behar izatea Konstituzioaren kontrakoa dela xedatzen du, Konstituzioaren arabera ez baitute betetzen lanbidea antolatzearekin zerikusia duen eginkizun edo funtzio publikorik–.

<sup>8</sup>Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko epaia, *LeCompte, Van Leuven eta De Meyere vs. Belgika* auziari buruzkoa, eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1993ko ekainaren 30eko epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson vs. Islandia* auziari buruzkoa, A seriea, 264 zenbakia –taxilari bat legez taxi-gidarien erakunde bateko afiliatu egitera behartzea neurrigabea dela xedatzen du–.

<sup>9</sup>Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 epaia, 2013ko urtarrilaren 17koa [EAO, 37 zk., 2013ko otsailaren 12koa] –profesionalen elkargoei buruzko Andaluziako legearen gainekoa da, eta elkargo bateko kide egitera behartzeko eta salbuespenak finkatzeko eskumena Estatuarena bakarrik dela xedatzen du–. Ildo berean, Konstituzio Auzitegiaren 46/2013 epaia –profesionalen elkargoei buruzko Extremadurako legearen gainekoa da–, eta Konstituzio Auzitegiaren 50/2013 epaia –profesionalen elkargoei buruzko Asturiasko legearen gainekoa da–.

<sup>10</sup>“Legeak salbuetsitako jokaerak” izenburua du uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 4. artikulua, eta zera xedatzen du: “Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei”. Hala ere, zera eransten du: “Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte



Abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, oro har, lanbide batean sartzeko eta aritzeko mugak kentzen ditu, baina xedatzen du araudi batek aldatu behar dituela jarduteko eta elkargo bateko kide nahitaez egiteko erreserbak<sup>11</sup>. Gaur egun, profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 3.2. artikulua xedatzen du Estatuko lege batek ezartzen duenean bakarrik izan daitekeela ezinbestekoa elkargo bateko kide egitea lanbide batean aritzeko. Hala ere, legez arautzen ez den bitartean zer lanbidetan aritzeko den nahitaezkoa elkargo bateko kide egitea, Legea indarrean sartzean indarrean dauden betebeharrak finkatzen ditu abenduaren 22ko 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrak. Hau da, behin-behinean, nahiz eta maila desegokiko arauak ezarri, elkargo bateko kide egiteko betebeharrak legezkoak dira.

6. Abenduaren 26ko 75/1980 Legearen bidez, Biologoek Elkargo Ofiziala sortu zen: zuzenbide publikoko korporazio bat, nortasun juridikoa eta bere eginkizunak betetzeko gaitasun osoa duena. Apirilaren 26ko 693/1996 Errege Dekretuak, Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuak onartzeko denak, zera xedatzen du: "Lurraldeko elkargo ofizialak sor daitezke Biologoek Elkargo Ofizialetik banatuta". Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetako 7. artikulua, berriz, "Nahitaezkoa da bazkide izatea" izenburua du, eta zera dio: "Biologoaren lanbidean aritzeko derrigorrezkoa izango da Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialeko bazkide izatea. Bazkidea, horretaz gain, edozein sindikatuko kide ere izan daiteke". Horrenbestez, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialeko kide nahitaez egiteko eskakizunaren oinarria ez da lege bat, errege-dekretu bat baizik.

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala uztailaren 8ko 167/1997 Dekretuaren bidez sortu zen, Biologoek Elkargo Ofizialetik banatuta<sup>12</sup>.

7. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, agindu hauek arautzen dute Elkargoko kide nahitaez egin beharra:

**7. artikulua. Nahitaezkoa da bazkide izatea**

Biologoaren lanbidean aritzeko derrigorrezkoa izango da Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialeko bazkide izatea. Bazkidea, horretaz gain, edozein sindikatuko kide ere izan daiteke. Administrazio publikoarekin loturaren bat duten profesionalak ez dute bazkide zertan izan behar, baldin era lotura hori zerbitzuetakoa bada, zuzenbide administratiboaren edo laboralaren arabera araututakoa hain zuzen ere.

Era berean, nahitaezkoa izango da martxoaren 15eko 2/2007 Legearekin bat eratzen diren sozietate profesionalak dagokion erregistroan erregistratzea.

publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira".

<sup>11</sup>Zera xedatzen du abenduaren 22ko 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrak: "Hamabi hilabetez gehienez ere, Gobernuak lege-proiektu bat aurkeztuko du Gorte Nagusietan, zehazteko zer lanbidetan aritzeko den nahitaezkoa elkargo bateko kide egitea. Proiektuak xedatuko du elkargo bateko kide egiteak nahitaezkoa izaten jarraituko duela egoera hauetan: batetik, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa izatea tresna eraginkor bat denean lanbide bateko jarduna kontrolatzeko eta, hartara, zerbitzuen hartzaileak ahal bezain ondoen babesteko eta, bestetik, elkargo bateko kide ez izatea nahitaezkoa ez izateak zuzeneko eragin larria izan dezakeenean interes publiko bereziko gaietan, hala nola pertsona fisikoaren osasun eta osotasun fisikoan eta segurtasun pertsonal eta juridikoan". Alabaina, Gobernuak oraindik ez du aurkeztu horrelako proiekturik.

<sup>12</sup>EHAA, 1997ko uztailaren 21ekoa.



Artikulu honek xedatzen duena indarrean dagoen legediarekin bat etorriko da.

#### **14. artikulua. Betebeharrak**

Bazkideen betebeharrak:

13. Bazkide profesionalak sozietate profesionala dagokion sozietate profesionalen erregistroan erregistratzea, legediak eta araudiak ezartzen dituzten baldintzetan.

Sozietate profesionalak Erregistroan erregistratzen direnetik, Elkargoak Elkargoko kide diren pertsona fisikoen gaineko legezko eta estatutuzko eskumen berak izango ditu haien gainean: zehazki, diziplina-araubideari, araubide deontologikoari eta bateraezintasun- eta gaitasungabetze-araubideari buruzkoak. Horrek guztiak ez dio egingo kalte profesionalen diziplinazko erantzukizunari, profesionalen elkargoarenarekin batera jazoko baita.

Sozietatea Erregistroan erregistratzeak ez du esan nahi bazkide profesionalak ez dutenik egin behar Elkargoko kide lanbidean aritzeko.

Nolanahi ere, sozietate bakoitzarentzako berariazko kuotak finkatuko dira, elkargo bakoitzeko kide kopuruaren arabera. Elkargoko kideek ez dute ordaindu beharko kuotarik, Sozietateari dagozkion gaineko erantzukizun subsidiarioari kalte egin gabe.

8. Elkargoko kide nahitaez egiteko betebeharra jarduteko erreserba bat da, profesionalak Elkargoko kide izan behar baitute titulu jakin bat izateaz gain. Lanbide batean aritzeko aukera Elkargoko kide diren profesionalak bakarrik ematea hirugarrenak sartzeko oztopo bat da eta, hasiera batean, beste lehiakide batzuei eta kontsumitzaileei kalte egiten die<sup>13</sup>.

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuek biologo-lanbidean aritzeko betebehartzat dute Elkargoko kide egitea. Arestian esandakotik ondorioztatzen denez, ordea, biologoak Elkargoko kide egiteko betebeharra behin-behinean bakarrik dago indarrean, abenduaren 22ko 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrenekin bat. Izan ere, nahiz eta ez duen ezartzen Estatuko lege-mailako arau batek, apirilaren 26ko 693/1996 Errege Dekretuko 7. artikulua indarraldia finkatzen du abenduaren 22ko 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrak.

Nolanahi ere, araudia aldatu aurretik Elkargoaren estatutuetan egiten den aldaketa orok ezin du aipatu Elkargoko kide egitea nahitaezkoa dela, edo aipatu behar du legediarekin bat ez datorren maila bateko arau batek ezartzen duela betebeharra eta, horrenbestez, behin-behinekoa dela, lege-mailako arau batek ezartzen duen artekoa<sup>14</sup>.

Hau da, bi aukera hauetako bat hautatu beharra dago:

- Elkargoko kide egitea nahitaezkoa den aipamen oro kendu 7. artikulutik (pertsona fisikoei buruzkotik) eta 14. artikulutik (sozietateei buruzkotik).

- 7. eta 14. artikuluetan berariaz aipatu Elkargoko kide egiteko betebeharra errege-dekretuaren mailako arau batek ezartzen duela eta, horrenbestez, abenduaren 22ko 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrenekin bat, behin-behinekoa dela. Aukera hau hautatzen badu, Elkargoak estatutuak aldatu beharko lituzke zerbitzuei buruzko Europako Erkidegoko direktiba iraultzeko araudia onartutakoan.

<sup>13</sup>Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 42. or.

<sup>14</sup>Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 44. or.



## B) Estatuko lurralde osoan elkargo bakarrek kide egitea

10. Nahiz eta, pentsatzekoa denez, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ez duen arautzen gaia berariaz, 39.4. artikulua zera xedatzen du: “Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta elkargoko kuotak bere baitan ez dituen beste zerbitzu batzuegatik inolako beste ordainik ere, beren kideei normalean prestazioengatik eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte”. Gainera, kontuan izan behar dira Espainiako Konstituzioko 139. artikulua eta profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 3.3. artikulua: Europako Erkidegoko araudiarekin bat, xedatzen dute lanbide bat lurraldeko elkargoetan antolatuta badago nahikoa dela bateko kide egitea Espainiako lurralde osoan aritzeko lanbidean.

9. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 7. artikulua arautzen du gaia:

### 7. artikulua. Nahitaezkoa da bazkide izatea

Biologoaren lanbidean aritzeko derrigorrezkoa izango da Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialeko bazkide izatea. Bazkidea, horretaz gain, edozein sindikatuko kide ere izan daiteke.

10. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetako 7. artikuluko esaldi bat zuzendu behar da: “Biologoaren lanbidean aritzeko derrigorrezkoa izango da **Euskadiko** Biologoek Elkargo Ofizialeko bazkide izatea”. Izan ere, biologoek beste elkargo batzuetako kide direnak ezingo lirateke aritu lanbidean.

## C) Zenbait lanbidetan batera aritzea

11. Azaroaren 21eko 18/1997 Legeak dioenez, lege batek xedatzen duenean bakarrik mugatu daiteke zenbait lanbidetan batera aritzeko aukera. Hain zuzen ere, zera xedatzen du 6.5. artikulua: “Edonola ere, [...] lanbide bi edo gehiago aldi berean egitekotan neurriak jartzen dituzten baldintzak [...] soil-soilik Legeak ezartzen dituen horietan izan daitezke”<sup>15</sup>.

12. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 9. artikulua arautzen du gaia:

### 9. artikulua. Ukapenak

Bazkideetza ukatzeko arrazoiak:

3. Beste Elkargo batek debekua jarri badiu lanbidean aritzeko, eta berriro aritzeko gaitasunik lortu ez badu.

13. Biologo-lanbidean eraginik duen legezko beste bateraezintasunik ez badago, aginduak ezin du eman aditzera ezin dela aritu bi lanbidetan batera. Hori dela eta, ezinbestekoa da “**biologoek** beste Elkargo batek” esatea testuak, arauaren kontra interpreta ezin izan dadin.

<sup>15</sup>Zehazki, zera xedatzen du 6.5. artikulua: “Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak edo lanbide bi edo gehiago aldi berean egitekotan neurriak jartzen dituzten baldintzak [...] soil-soilik Legeak ezartzen dituen horietan izan daitezke”.



## D) Elkargoak bakarrik ordezkatzeta lanbidea erakunde-arloan

16. Zera xedatzen du azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 22. artikulua: “Elkargo profesionalak [...] bere helburua izango du nahitaez elkargora bildu beharra eskatzen duen dena delako lanbidea erakunde modura ordezkatzeko duen bakarra izatea; kideen interes profesionalak defendatzea eta kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda”. 6.5. artikulua, berriz, zera dio: “Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak [...] soil-soilik Legeak ezartzen dituen horietan izan daitezke”.

Profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 3.3. artikulua, ordea, zera xedatzen du: “Profesionalen elkargoen funtsezko eginkizun bat da lanbidea erakunde-arloan ordezkatzeko duten bakarrak izatea, dena delako lanbideak elkargora nahitaez bildu beharra eskatzen duenean **bakarrik**”.

14. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 4. artikulua arautzen du gaia:

### 4. artikulua. Helburuak.

Elkargoaren funtsezko eta oinarrizko helburuak:

Biologo lanbidea eratzea modu eta espezialitate guztietan, bereak diren eskumenen barruan eta legeetan ezarritakoaren arabera.

1. Indarrean dagoen legediarekin bat, lanbidea erakunde-arloan ordezkatzeko duen bakarra izatea.

15. “Elkargo profesionala dena delako lanbidea erakunde-arloan ordezkatzeko duen bakarra” izateari buruzko artikulua ez ditu lotzen Elkargoa ordezkari bakarra izatea eta Elkargoa nahitaez kide egin behar denetakoa izatea. Hala ere, lanbide batean bakarrik aritzeaz ere badihardu arauak, eta xedatzen du lege-mailako arau batek ezarri behar duela eskakizuna. Bi aginduak batera interpretatu behar dira, oinarrizko legediarekin eta Espainiako Konstituzioko 139. artikuluekin bat. Hori dela eta, zera ondorioztatu dugu: arestian Elkargoko kide nahitaez egiteari buruz esandakoa (9. paragrafoa) gai honi buruz ere esan daiteke.

## E) Elkargoak Elkargoko kideak ordezkatzeta

19. Zera xedatzen du azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 22. artikulua: “Elkargo profesionalak [...] bere helburua izango du nahitaez elkargora bildu beharra eskatzen duen dena delako lanbidea erakunde modura ordezkatzeko duen bakarra izatea; kideen interes profesionalak defendatzea eta kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda”.

Profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 5. artikulua, berriz, elkargoen funtzioak arautzen ditu eta, g) paragrafoan, zera xedatzen du: “Bereak diren eskumenen barruan, lanbidea eta bazkideak ordezkatzeta [...] Administrazioaren, erakundearen, auzitegien edo entitate eta partikularren aurrean. Legitimatuta egongo da





alderdi legetxe aurkezteko interes profesionalei [...] daragieten auzietan. Eskaera-eskubidea ere burutuko du, Legeari jarraituz.”.

**16.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 5.2. artikulua arautzen du gaia:

**5. artikulua. Egitekoak**

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu bere helburuei begira:

2. Lanbidea eta bazkideak ordezkatzeko eta defenditzea Administrazioaren, erakundearen, auzitegien edo entitate eta partikularren aurrean. Legitimatuta egongo da alderdi legetxe aurkezteko interes profesionalei, eskubideen defentsari eta egindako lanengatik sortutako ordainsariei daragieten auzietan. Eskaera-eskubidea ere burutuko du, Legeari jarraituz.

**17.** Aginduak xedatzen du Elkargoaren egitekoa dela lanbidea ordezkatzeko eta defendatzea, zentzuzkoa denez, baita Elkargoko kideak ordezkatzeko eta defendatzea ere. Elkargoko kideak ordezkatzeari dagokionez, aplikatu beharreko araudia guztia koherentziaz interpretatzen badugu, ikusiko dugu berariaz eskatzen dutenean bakarrik ordezkari ditzakeela Elkargoak Elkargoko kideak. Beraz, agindua bestela idatzi behar da, eta garbi utzi Elkargoko kideen borondatearen arabera dela Elkargoak haiek ordezkatzeko.

**F) Ordainsariak**

**a) Ordainsariak kobratzeko Elkargoko zerbitzua**

**18.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24.f) artikulua xedatzen du elkargoaren berezko eginkizun bat dela “ordainak, soldadak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuaren zehazten diren baldintzetan”. Profesionalen elkargoari buruzko Estatuko 1974ko legeko 5. artikulua, berriz, xedatzen du elkargoaren funtzio bat dela “ordainak, soldadak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek beren kabuz eta berariaz eskatuz gero, zerbitzu egokiak sortu badituzte, elkargo bakoitzeko estatutuaren zehazten diren baldintzetan”.

**19.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 29. artikulua arautzen du gaia:

**29. artikulua. Eskumenak**

Gobernu Batzordearen eskumenak:

11. Bazkidetzeko, baja hartzeko, kuota eta ekarpen ordaintzeko eta ordainsari kobratzeko prozedurak arautzea, estatutu hauetako II. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

**20.** Alde horretatik, gogoan izan beharra dago Elkargoaren jardunaren helburua ezin dela izan prezioak finkatzea, gutxi gorabehera bada ere, ez zuzenean ez zeharka. “Ordainsariak kobratzeko Elkargoko zerbitzua” delakoa elkargoek elkargoetako kideen jarduna kontrolatzeko bide bat da eta, horrenbestez, ezin da izan nahitaezkoa; aitzitik, profesionalak eskatu behar dute, beren kabuz eta berariaz.



“Elkargo profesionalek ordainsariak kobratzea oso arriskutsua da lehia mugatzearen ikuspegitik. Batetik, profesionalak aurrez adosten badira eta ordainsariak finkatzen badituzte, merkatua banatzen badute edo konpentsazio-hitzarmen bat ezartzen badute, profesionalek hitzarmena betetzen dutela kontrolatzeko mekanismo bat izan daiteke kobrantzak zentralizatzea. Bestetik, nahiz eta ez lehiatzeko hitzarmenik ez egon aurrez, profesional askok bideratzen badituzte kobrantzak Elkargoaren bidez eta informazioa zabaltzen bada, litekeena da lehia mugatzea”<sup>16</sup>.

Horregatik guztiagatik, aginduaren idazkera aldatu behar da, berariaz jasota gera dadin horrelako prozedurak ez direla nahitaezkoak eta Elkargoak lehiaren kontra joka ez dezan bere eskumenak erabiltzen dituenean.

### **b) Ordainsariei eta prezioak zeharka finkatzeari buruzko txostenak**

**21.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24.e) artikulua xedatzen du elkargoen berezko eginkizun bat dela “irizpide orientatiboak prestatzea, **kostak tasatzeko** eta abokatuen kontuei zin egiteko. Irizpide horietan baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko”. 24.f) *in fine* artikulua, berriz, xedatzen du elkargoen berezko eginkizun bat dela “zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizialean txostenak ematea”<sup>17</sup>.

**22.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 5.14. eta 14.3. artikuluek arautzen dute gaia:

#### **5. artikulua. Egitekoak**

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu bere helburuei begira:

14. Zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozedura judizialean kostak tasatzeko irizpideei buruzko txostenak ematea.

#### **14. artikulua. Betebeharrak**

Bazkideen betebeharrak:

3. Adierazpen profesionalak, kontratuak eta eskatzen dizkieten gainerako dokumentuak aurkeztea Elkargoari, estatutuek eta araudiak xedatzen dutenarekin bat.

**23.** Legez, zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozedura judizial guztietan txostenak emateko eginkizuna du Elkargoak, eskatzen badiote betiere. Aginduak “kostak tasatzeko irizpideak” aipatzea legediaren kontrakoa da.

Indarrean dagoen legediak utzi egiten du kostuak tasatzeko irizpideak finkatzen. Hala ere, alde horretatik, ñabardura bat egin beharra dago: “irizpideak” aipatzen ditu arauak; ez ditu aipatzen “baremoak”. Irizpideak dira “kostuak tasatzeko kontuan hartu beharreko elementuak”<sup>18</sup>. Alabaina, horrelako elementuak kasu bakoitzean

<sup>16</sup>Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 73. or.

<sup>17</sup>“Zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizialean txostenak emateko” eginkizuna aipatzen du profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 5.o) artikulua. Laugarren xedapen gehigarriak, berriz, zera xedatzen du elkargoek kostuak tasatzeari dagokionez: “Elkargoek irizpide orientagarriak finka ditzakete, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko bakarrik”.

<sup>18</sup>Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 71. or.



aplikatzearen emaitza kuantitatiboa ezin da hartu irizpidetzat; aitzitik, prezio edo ordainsaritzat hartu behar da eta, horrenbestez, debekatuta dago.

Zera da esanguratsuena: 5.14. artikulua idazkera kontuan izanik, ondorioa da Elkargoak ordainsariei buruz egiten dituen txosten guztietan erabiliko dituela “kostuak tasatzeko irizpideak”, direla txostenak kostuak tasatzeari buruzkoak, direla nolanhiko beste edozein erreklamaziori buruzkoak. Alabaina, lehiaren eta indarrean dagoen legediaren kontrakoa da hori argi eta garbi, eta, beraz, aginduaren idazkera aldatu beharra dago, eta argi utzi kostuak tasatzeko txostenetan bakarrik erabiliko direla irizpideak eta gainerako txostenak ez direla oinarrituko haietan.

**24.** 14.3. artikulua bidez, Elkargoak aukera bat bete behar bihurtzen die bere mugapean elkargo bateko kide diren guztiei. Horrek ez du legezko oinarririk, eta informazioa zabaltzea ekar dezake. Era berean, informazioa zabaltzeak kalte egin diezaiolke profesionalen arteko beharrezko lehiari, errazagoa bailitzateke hitzarmenak egitea.

Horrenbestez, bereziki zaindu behar da aukera horixe izatea, aukera bat, lankidetzabete beharra eta Elkargoko kide direnen babesa bateratzeko<sup>19</sup>. Ildo horretan, komeni da aginduak zehazki argitu dezan horrelako eskakizunen izaera eta helburua.

### G) Oniritzia

**25.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko eginkizunak, eta, i) paragrafoan, eginkizun hau ezartzen du: “Lanbide teknikoiei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, **bezeroek** (herri-administrazioak barne) **halaxe eskatzen dutenean**, edo **indarrean dagoen araudiak** hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz, baina ez ditu inola ere agertuko ez ordainsariak ez eta kontratuaren baldintzak ere; bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko dira. Ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboaren kontrol teknikoa. Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu onekoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta diskriminatzailea ere. Elkargoek publizitatea egin behar diote ikus-onespenaren kostuari; publizitatea telematikaren bidez ere egin daiteke”<sup>20</sup>.

Abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuak, elkargoen nahitaezko oniritziari buruzkoak, ez du aipatzen biologo batek egin dezakeen eta oniritzia nahitaez behar duen lanik.

**26.** Euskadiko Biologo Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 5.8., 13.3., 17., 34.7. eta 51.1.e) artikuluek arautzen dute gaia:

<b>5. artikulua. Egitekoak</b>
--------------------------------

<sup>19</sup>Ildo berean, txosten honetako 39. paragrafoko hausnarketak.

<sup>20</sup>Ildo berean, profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 13.1. artikulua.



Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu bere helburuei begira:

8. Izenpean errekonozimenduak egitea, edo biologoek euren lanbidean aritzerakoan burututako proiektuen, txostenen, irizpenen, balorazioen, peritajeen eta gainerako lanen bisatua; eta gobernuko organoek egiteko horretarako onar ditzaten ziurtagiri ofizialen inprimakiak editatu eta banatzea. Indarrean dagoen legediarekin bat egingo du hori guztia.

### **13. artikulua. Eskubideak**

Bazkideen eskubideak:

3. Lan profesionalarekin zerikusirik duten agiriak aurkeztea, erregistratzeko eta bisatzeko. Profesionalen sozietatearen edo lana egiten duen Elkargoko kide profesionalaren izenean bisatuko ditu lan profesionalak, interesdunak zer eskatzen duen kontuan izanik.

### **17. artikulua. Lan profesionalen erregistroa eta bisatua**

Lan profesionalak burutzeko eta bisatzeko arauak eta baldintzak ezarriko ditu Elkargoak, indarrean dagoen legediarekin bat. Arauok, Gobernu Batzordeak proposatu eta alde zuzenetik elkargoa informatu ondoren, Batzar Orokorrek onartuko ditu.

Lanen batzuk konfidentzialak direla-eta ezinezkoa bada horiek arauz erregistratzea eta bisatzea, itxaron egingo da egoera hori gainditu arte, eta orduan erregistratu eta bisatuko dira.

### **34. artikulua. Idazkariaren aginpideak**

Honako aginpide hauek dagozkio idazkariari:

7. Lan profesionalari buruzko bisatuen erregistro-liburuaz arduratzea. Ukapena eman dezake lan horietan hutsune formalik antzematen badu, duintasun profesionalaren edo aginpide eta eskumen profesionalen alorrean indarrean dauden xedapenen kontrakoak badira.

### **51. artikulua. Elkargoaren baliabide ekonomikoak**

Honako bide hauetarikoren bat erabiliz lortuko ditu Elkargoak bere baliabide ekonomikoak:

1. Orokortasunean oinarritutako printzipioen eta elkargoaren zerbitzuak erabiltzearen arabera, bazkideek nahitaez ordaindu behar dituzten kontribuzioak; hots:

e) Bisatua jaulkitzeak eta edozein eratako ordainketak atzeratzeak sortzen dituen errekarguak, arauz ezar dadinarekin bat.

## **a) Oniritzia eman beharra**

**27.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuaren 5.8. artikulua idazkera ezberdina da azaroaren 21eko 18/1997 Legearenaren aldean: ez du zehazten oniritzia borondatezkoa denik, eta kontzeptu berri bat ezartzen du, “izenpeak errekonozitzea”, definitzen ez duena eta oniritziaren parekoa dena itxuraz. Gainera, “governuko organoek egiteko horretarako onar ditzaten ziurtagiri ofizialen inprimakiak” aipatzen ditu –Elkargoaren oniritziaren ordezkioak izan daitezke horrelako inprimakiak–<sup>21</sup>.

Beharrezkoa da 5.8. artikulua bestela idaztea:

- Idazkera berriak zehaztu behar du bezeroek euren borondatez eta berariak eskatzen dutenean bakarrik eman diezaiekeela Elkargoak oniritzia lan profesionalari.
- Kontzeptu ilunak ezabatu behar dira, hala nola “izenpea errekonozitzea”.

<sup>21</sup>Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 89. or.



- "Ziurtagiri ofizialen inprimakiak" oniritziaren ordezkotzat bihurtu ahal izatea galarazi behar da.

**28.** Gauza bera esan daiteke Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuaren 13.3. artikuluan buruz. Elkargoko kideen "eskubide" bat arautzen du, baina aldatu egin behar da, zehazteko bezeroek berriaz eta euren borondatez eskatzearen arabera dela eskubidea erabiltzea.

#### **b) Kostua**

**29.** 51.1.e) artikuluan xedatzen du "bisatua jaulkitzeak sortzen dituen errekarguak" direla Elkargo finantzatzeko bideetako bat.

Kontuan izan beharra dago oniritziarekin zerikusia duen kostu oro zerbitzua eskatzen dutenek bakarrik ordaindu behar dutela. Hau da, oniritziaren kostua ez dute Elkargoko kideek ordaindu behar, beren borondatez eskatzen duten bezeroek baizik. Hortaz, beharrezkoa da 51.1.e) artikuluko aipamena ezabatzea.

#### **H) Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea**

**30.** Gaur egun, urtarrilaren 10eko 3/1991 Legea dago indarrean gure sistemaren barruan, eta oso debeku zehatzak ezartzen ditu. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, zera xedatzen baitu: "**Kontsumitzaile eta bezeroekiko harremanen esparruan**, fede onaren kontratatzat joko da enpresaburu edo profesional batek profesionalak izan beharreko arduraren kontrako jokabidea izatea, haren jokabidea kontsumitzaile jakin batentzako jokabide komertziala bada eta jokabidearen hartzaile den **kontsumitzaile arruntaren** edo jokabidearen hartzaile den taldeko kide arruntaren **jokabide ekonomikoa nabarmenki desitxuratzeko badu edo nabarmenki desitxura badezake**. Alde horretatik, profesionalak izan beharreko arduratzat joko da merkatuko jardunbide zintzoen arabera enpresaburuengandik espero izatekoak diren gaitasun maila eta arreta bereziki". Klausula orokor horrekin bat, arauko 5-31. artikuluek arautzen dituzten jardunbideak bakarrik har daitezke desleialtzat. Publizitateari dagokionez, berriz, azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrak, publizitateari buruzkoak, legez kontrakoak jotzen dituenak bakarrik har daitezke desleialtzat.

**31.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuaren, 5.9. eta 19. artikuluek arautzen dute gaia:

##### **5. artikulua. Egitekoak**

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu bere helburuei begira:

9. Kontziliazio- edo bitartekotza-zereginetan esku hartzea arrazoi profesionalak direla eta bazkideen artean ager daitezkeen auzietan; eta, oro har, bazkideen arteko harmonia, lankidetzeta eta elkartasuna bultzatzea, lanbidean aritzerakoan bidegabeko lehiaketarik egon ez dadin saiatuz.

##### **19. artikulua. Publizitatea**

Biologoek ezingo dira bidegabeko lehiatan sartu. Publizitateari dagokionez, indarrean dagoen legedia bete beharko dute.



**32.** Bi arauak aipatzen dute “indarrean dagoen legedia”, legezkoak izateko, baina kontuan izan beharra dago “lehia bidegabea” termino orokorra erabiltzeak lehia murriztea ekar dezakeela, haren hedadura nabarmen handiagoa baita oro har Legeak xedatzen duena baino.

Kontuan izanik aldaketak izan direla gaiari buruzko araudian eta kontuan izanik Elkargoko kideek ez dutela zertan jakin haien berri, komeni da Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuek berariaz aipatzea lehia bidegabeari buruzko legeko zer arautan izan dezaketen eragina profesionalen jardunbideek –oso gutxi dira–. Alde horretatik, kontu handiz ibili behar da, gutxieneko ordutegiak, ordutegien koordinazioa eta ordutegia finkatzeko askatasunaren kontrako murrizketak ez ezartzeko eta profesionalen komunikazio komertziala ez mugatzeko, baita horrelako jardunbideei bide ez emateko ere.

Bereziki zaindu behar da agindu honen garapena eta erabilera. Izan ere, esan bezala, uztailaren 3ko 15/2007 Legeari men egitea ez da Elkargoaren estatutuen hitzez-hitzezko testuak Legeari men egitea bakarrik, aitzitik, Elkargoaren egintza eta erabaki guztiek araudiari men egitea ere bada.

### **I) Elkargoa Elkargoko kideen kontrako lehia bidegabean aritzea**

**33.** Urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeak, lehia bidegabeari buruzkoak, 15. artikuluan xedatzen duenez, “arauak urratzea” lehia bidegabea izan daiteke.

**34.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 14.3. eta 51.2.c) artikuluek arautzen dute gaia:

#### **14. artikulua. Betebeharrak**

Bazkideen betebeharrak:

3. Adierazpen profesionalak, kontratuak eta eskatzen dizkieten gainerako dokumentuak aurkeztea Elkargoari, estatutuek eta araudiak xedatzen dutenarekin bat.

#### **51. artikulua. Elkargoaren baliabide ekonomikoak**

Honako bide hauetarikoren bat erabiliz lortuko ditu Elkargoak bere baliabide ekonomikoak:

2. Beste diru-sarrera batzuk:

c) Gobernu Batzordeak edo horrek eskuordetutako batzordeek gauza ditzaten azterlanen, txostenen eta irizpenen eskubideak.

**35.** 51.2.c) artikulua xedatzen du Elkargoa finantzatzeko iturri bat direla Gobernu Batzordeak egiten dituen azterlan, txosten eta irizpenen eskubideak. Artikuluak ez du zehazten nolakoak diren Elkargoak egiten dituen lanak, baina, profesionalak badira, Elkargoko kideenak direla jo behar da, Elkargoak berak ez baitu titulurik. Izan ere, Elkargoak titulurik izango balu, Elkargoko kideen lehiakide izango litzateke. Alde horretatik, bi ondorio izan ditzake Elkargoak biologoek berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat litzateke. Zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea izan liteke, eta profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin. Are larriagoa izan liteke hori, kontuan izanik Elkargoko kideek “adierazpen profesionalak, kontratuak eta eskatzen dizkieten gainerako dokumentuak” aurkezteko betebeharra dutela 14.3. artikuluekin bat.



- Eragile batek (Elkargoak) abantaila izango luke, Elkargoko kideen beren kaltetan, eta Elkargoko kideen lehia galaraziko luke horrek. Sistema honekin, litekeena da zerbitzu jakin batzuk Elkargoak banatzea, negozioa “bere egingo” bailuke.

Horrenbestez, 51.2.c) artikulua ezabatu ezean, komenigarria litzateke honakoa eranstea, hitzez hitz: “Eskubideok inola ere ezingo dira izan Elkargoak biologo-lanbidearen berezko zerbitzuak ematearen emaitza”.

## J. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

**36.** Zera dio Lehiaren Espainiako Batzordeak profesionalen elkargoei buruz egindako txostenak: “Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da eta, gainera, baliteke erabiltzaile eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak”<sup>22</sup>.

**37.** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuetan, 51.1.d) artikulua arautzen du gaia:

### 51. artikulua. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

Honako bide hauetarikoren bat erabiliz lortuko ditu Elkargoak bere baliabide ekonomikoak:

1. Orokortasunean oinarritutako printzipioen eta elkargoaren zerbitzuak erabiltzearen arabera, bazkideek nahitaez ordaindu behar dituzten kontribuzioak; hots:
  - d) Lan profesionalaren ondoriozko ordainsariak, arauz ezar dadinarekin bat.

**38.** Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, ez lirateke Elkargoko kideen lanaren ordainsarien arabera kalkulatu beharko, Elkargoak Elkargoko kideei ematen dizkien zerbitzuen arabera baizik.

## IV. ONDORIOAK

**Lehena.** Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

**Bigarrena.** Elkargoko kide egitea nahitaezkoa izateak zalantzak sorrarazten ditu eskumenen aldetik, profesionalak merkatuan sartzeari dagokionez ez ezik, profesionalak lanbidean aritzeari dagokionez ere, eta interes publikoari eta kontsumitzaileei kalte egin diezaieke. Hortaz, interes publikoak justifikatzen duenean bakarrik izan daiteke nahitaezkoa Elkargoko kide egitea, lege batek xedatzen badu betiere.

**Hirugarrena.** Edonola ere, elkargodun lanbideetako jardunaren antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen



eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

**Laugarrena.** Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak planteatu du beharrezkoa dela Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutueta artikulua hauek aldatzea: 4.1. artikulua, lanbidea erakunde-arloan Elkargoak bakarrik ordezkatzearen eta Elkargoko kide nahitaez egitearen arteko erlazioari buruzkoa; 5.2. artikulua, Elkargoak Elkargoko kideak ordezkatzeari buruzkoa; 5.8. artikulua, oniritzia eman beharrari buruzkoa; 5.14. artikulua, irizpideak kostuak tasatzeaz beste helburu batzuetarako erabiltzeari buruzkoa; 7. artikulua, Elkargoko kide nahitaez egiteari eta Estatuko lurralde osoan elkargo bakarreko kide egiteari buruzkoa; 9.3. artikulua, zenbait lanbidetan batera aritzeari buruzkoa; 13.3. artikulua, oniritzia eman beharrari buruzkoa; 14.13. artikulua, Elkargoko kide nahitaez egiteari buruzkoa; 29.11. artikulua, ordainsariak kobratzeko Elkargoko zerbitzuari buruzkoa; eta 51.e) artikulua, oniritziaren kostuari buruzkoa. Era berean, artikulua hauek egokitzea edo aldatzea gomendatu du: 5.9. eta 19. artikulua, Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzeari buruzkoak; 51.1.d) artikulua, Elkargoaren baliabide ekonomikoei buruzkoa; eta 51.2.c) artikulua, Elkargoa Elkargoko kideen kontrako lehia bidegabean aritzeari buruzkoa.

Bilbon, 2013ko apirilaren 8an.

**LEHENDAKARIA**  
**MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**IBON ÁLVAREZ CASADO**

**KIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**

<sup>22</sup> Lehiaren Espainiako Batzordearen txostena, 57. or.